

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2022ko apirila

Aurkibidea

1. Hazkunde ekonomikoa
2. Inflazioa
3. Lehengaiak
4. Enpresen konfiantza
5. Enpleguaren igurikimenak
6. Aurreikuspenen berrikusketa
7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. EAEko ekonomia %4,5 haziko da 2022an.

Datorren urtean BPGa %4,1 haziko dela aurreikusten da.

2. Inflazioak 1986ko amaieratik inoiz izan duen tasarik gorena jaso du.

Indize orokorra %7,4an kokatu zen eta azpiko inflazioa, berriz, %3,1ean.

3. Lehengaien prezioek goranzko joerari eutsi diote.

Espero izatekoa da elikaduraren lehengaiak are gehiago garestitzea, Ukrainaren gatazkaren ondorioz.

4. Ukrainako gerrak oraindik ez ditu Europako igurikimenak ilundu.

Euroguneko PMI konposatuak oraindik hazkunde nabarmeneko mailan jarraitzen du.

5. Enpleguari buruzko igurikimenak baikorrak dira oraindik Europan.

Otsailean maximoa ezarri eta gero, indizea 1,1 puntu baino ez da jaitsi orain.

6. Ukrainako gerraren eragina ekonomian.

ELGERen arabera, gerrak 1,1 puntu kenduko dizkio munduko BPGari.

7. Hilabeteko laburpena.

Inflazio gehiago eta BPG gutxiago.



EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


EAEko ekonomia %4,5 haziko da 2022an

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2022ko HAZKUNDEA

%4,5




Munduko ekonomia 2020an hasitako pandemiaren ondorio negatiboak berreskuratzeko prozesuan dago oraindik. Espero zen normaltasuna datozen hiruhilekoetan zehar ezarriko zela, txertaketa kanpainen aurrerapenei eta laguntza makroekonomikoko politikei esker. Hala ere, Errusiak hasitako gerrak erabat deuseztatzen du otsailaren 24a baino lehen egindako aurreikuspen ekonomiko guztiak. Ziurgabetasuna da nagusi munduko ekonomian, batez ere Europan, non susperraldia oso atzeratuta eta ahulduta geratu den.

Eskura dagoen koiunturazko informazioarekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2022rako taula makroekonomikoa berrikusi du, beheranzko zuzenketa garrantzitsua batekin, eta 2023ari dagokion lehen zenbatespena argitaratu du. Aurreikuspen agertoki berriak %4,5eko batez besteko gehikuntza tasa ezartzen du 2022an, eta %4,1ekoa, berriz, 2023an. Beheranzko zuzenketa, batez ere, prezioen gorakadan, hornidura kateetako botila lepo iraunkorretan eta eragile ekonomikoen konfiantzan izango duten ondorioetan oinarritzen da.


AZKEN KONTSUMOA

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Familien kontsumoa moteldu egingo da, inflazioak erosteko ahalmena kentzen dielako beraiiei. Halaber, familiak kontsumoa motelduko dute gerrak ekarri duen ziurgabetasuna dela eta. Zuhurtasun efektuak enpresen inbertsioari ere eragingo dio. Inflazioko tentsioek eta hornidura kateetako arazoen baldintzatuko dute agregatu horren bilakaera. Eskaintzari dagokionez, ekoizpen adar guztiek aurreko taula makroekonomikoarekiko gutxituko dituzte hazkundeak.

Lan merkatuari dagokionez, 2022an eta 2023an, hurrenez hurren, lanaldi osoko lanpostuak %2,8 eta %1,8 haziko direla aurreikusten da. Langabezia tasa %9,5era arte motelduko da urteko batez bestekoan 2022an, eta %9,1eko batez bestekora iritsiko da 2023an.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Ehunekoa




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

INFLAZIOA

Inflazioak 1986ko amaieratik inoiz izan duen tasarik gorena jaso du

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



EAEko KPI indizea otsailean, 35 urtean izan duen tasarik altuenera iritsi zen, igoera %7,4 izan baitzen, aurreko hilean baino puntu bat eta lau hamarren handiagoa. Inflazioaren goranzko joera hori areagotu egin zen Ukrainaren eta Errusiaren arteko gatazka dela eta. Gatazka horren ondorio nagusia erregaien prezioaren garestitzea izan zen.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2020	2021	2022ko otsaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	6,0	6,0
Azpiko inflazioa (%79,5)	0,8	1,0	2,6	2,0
- Elikagai landuak (%15,8)	1,7	1,4	4,3	0,7
- Industria ondasunak (%22,7)	0,3	1,0	3,2	0,7
- Zerbitzuak (%41,0)	0,8	0,7	1,6	0,6
Hondar inflazioa (%20,5)	-4,0	12,1	19,5	4,0
- Landu gabeko janariak (%9,3)	4,0	2,6	5,0	0,5
- Energia (%11,2)	-9,4	21,3	32,6	3,5


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Izan ere, argindarrak eta gasolinak eragin negatiboa pairatu zuten gas naturalaren eta petrolioaren prezioaren igoera nabarmenagatik, gerra horren ondorioz, eta gorakada garrantzitsu horretan pisu handiena izan zuten. Prezio energetikoen tentsio horiek erosketa saskiko gainerako taldeetara igarotzen hasi dira, eta hala erakutsi zuen azpiko inflazioaren bilakaerak, %3ko langa gainditu baitzuen, urtearen hasieran %0,5

inguruan mugitzen zen bitartean. Taldeen artean, inflazio tasarik gorena jaso zuena etxebizitzarena izan zen (%26,8), elektrizitatearen prezioen goranzko joeragatik. Garraioarenak, berri, %12,1eko tasa eskuratu zuen, erregaien gorakada ezagunak eraginda. Azkenik, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldeak ere gora egin zuen, lehengai batzuen eskasiaren ondorioz.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2022ko otsaila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	7,4	7,6	5,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	5,3	5,6	4,7
Edari alkoholodunak eta tabakoa	3,0	2,3	2,2
Jantziak eta oinetakoak	3,4	3,6	2,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	26,8	25,4	13,4
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	4,5	3,7	3,8
Osasuna	0,8	1,0	0,9
Garraioa	12,1	12,8	10,3
Komunikazioak	-0,7	-0,7	-0,4
Aisia eta kultura	1,7	1,5	3,1
Hezkuntza	1,5	1,2	-0,9
Jatetxeak eta hotelak	3,0	3,6	4,4
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,2	2,3	2,1

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



Lehengaien prezioek goranzko joerari eutsi diote


LEHENGAIEN PREZIOA

Indizea

2022KO OTSAILA

178,4

Produktu energetikoak bezala, lehengaiak ere azkar garestitzen ari dira berriro nazioarteko merkatuetan. Errusiako tropek Ukraina inbaditu aurretik ere gertatzen ari zen garestitze hori. Izan ere, The Economist egunkariak argitaratzen duen guztizko lehengaien prezioen indizeak igoera handia izan zuen otsailean eta 178,4 puntuetan kokatu zen, azaroan zeukana baino ia hogeita hamar puntu gorago.




Goranzko ibilbide handiena egin duten osagaietako bat elikadura lehengaiena izan da; izan ere, otsailean 150,5 puntura iritsi ziren, eta 2012an erregistratutako gailurra ere gainditu dute. Gatazkan dauden herrialdeak zerealen ekoizle handiak direnez, pentsatzekoa da produktu horien eskuragarritasuna oso mugatua izango dela datozen hilabeteetan, eta, ondorioz, prezioek nabarmen igotzen jarraituko dutela.

ELIKAGAIEN PREZIOA

Indizea


2022KO OTSAILA

150,5




BRENT PETROLIOA

Dolarrak upeleko



GAS NATURALA


Indizea



Beste aldetik, industria alorreko lehengaien prezioek ere nabarmen egin dute gora azken hilabeteetan, nahiz eta kasu honetan oraindik urrun dauden 2021eko lehen erdian izan zuten mailatik, pandemiaren unerik gogorrenaren ondoren ekonomiak bizi zuen susperraldi handian, alegia. Talde horretako bi osagaietatik, industriako lehengai metalikoak pandemia hasi aurreko hamarkadan erregistratutako batez bestekoaren gainetik daude argi eta garbi, eta ez-metalikoen aldaketak, berriz, txikiagoak dira.


LEHENGAI INDUSTRIALAK

Indizea




LEHENGAI INDUSTRIAL METALIKOAK

Indizea



LEHENGAI INDUSTRIAL EZ METALIKOAK

Indizea



Iturria: The Economist y Datastream.



Ukrainako gerrak oraindik ez ditu Europako igurikimenak ilundu


Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazka armatuaren hasiera dela-eta enpresek nola erantzun-go zuten ezagutzeko jakinmina zegoen. Hala ere, martxoko PMI indizeek ez dute izan ziurgabetasunagatik espero zen beherakada. Izan ere, Euroguneko PMI konposatua 54,5 puntutan kokatu zen, gerra hasi aurreko datua baino puntu bat beherago bakarrik eta oraindik ere hedapen handiko eremuan.

Hala manufakturen indizea nola zerbitzuen indizea pixka bat okertu dira, batez ere lehenengoa, baina bi kasuetan hileko horretan lortutako mailak egoera dinamikoa adierazten dute. Aurreko guztia horrela izan bada ere, badira egoera ekonomikoa okerrera egiten ari dela iradokitzen duten alderdi batzuk, hala nola prezioen igoerarekiko kezka eta eskaera berrien sarreraren motteltzea.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2022KO MARTXOA


54,5




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Deigarria da Frantzian erregistratutako erantzuna, herrialde hartako PMI konposatua (56,2) hobetu ere egin baita martxoan, zerbitzuen osagaiaren hobekuntza nabarmenari esker, nahiz eta industriak okerrera egin zuen. Alemanian, ordea, indize konposatua (54,6) puntu bat jaitsi zen, eta manufakturetan moteltasun handixeagoa izan zen.

Euroaren eremutik kanpo, are txikiagoa da gerrak igurikimenetan izan duen eragina. Erresuma Batuak, bi hamarreneko apaltzea izan zuen, baina 59,7 altuan mantendu zen. AEBetan eta Japonian, berriz, otsailekoak baino balio handiagoak erregistratu ziren martxoan.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA



PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA




PMI KONPOSATUA. AEB



Iturria: Markit

PMI KONPOSATUA. JAPONIA





ENPLEGUARI BURUZKO IGURIKIMENAK

Enpleguari buruzko igurikimenak baikorrak dira oraindik Europan


ENPLEGUAREN IGURIKIMEN INDIZEA
EUROGUNEA

2022ko MARTXOA

115,5


Martxoan, euroaren eremuko sentimendu ekonomikoaren indizeak nabarmen egin zuen behera, batez ere familien konfiantzaren beherakadak eraginda, baina txikizkako merkataritzak eta industriak ere okerrera egin zuten.

Hala ere, enpleguari buruzko igurikimenen indizeak oso emaitza positiboa izan zuen hilabete horretan, eta otsaileko mailarekiko, hileko horretan seriearen maximoa ezarri baitzen, 1,1




puntu soilik moteldu zen. Eurogunearen kasuan, indizea 115,5 puntuetan kokatu zen, hau da, igurikimenak 2000. urteaz geroztik erregistratutako batez bestekoaren oso gainetik daude. Alemania da enpleguari dagokionez baikortasun handiena erakusten duen herrialdeetako bat, eta martxoan maila moteldu zuen arren, maximotik puntu gutxira dago. Bestalde, Frantzia indizeak puntu bat baino gehixeago egin zuen hobera otsaileko balioaren aldean.

ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. ALEMANIA




ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. FRANTZIA




Espainiaren kasua euroaren eremura-ko azaldutakoaren antzekoa da, enpleguari buruzko igurikimenak sentimendu ekonomikoaren indizeak egin zuena baino nabarmen gutxiago apaldu baitziren. Zehazki, sentimendu ekonomikoa 6,5 puntu jaitsi zen, baina enpleguari buruzko igurikimenak 3,0 puntu bakarrik jaitsi ziren eta azken hogeitako batez besteko balioaren gainetik mantendu dira.


ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. ESPAINIA



ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK, HERBEHEREAK




ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. BELGIKA



Enpleguari buruz igurikimen onak dituen Europako beste herrialde bat Italia da, martxoan pertzepzioa 111,9 punturaino hobetu baitu, azken lau urteetako bigarren baliorik altuena.

Europako erdialdeko herrialdeek ere balio handiak erakutsi dituzte. Alde batetik, Herbehereek baikortasuna berreskuratu dute eta 114,0 puntutan kokatu dute indizea; Belgikan, berriz, adierazle horrek intentsitate apur bat galdu du, baina 114,3 puntutan dago.

ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. ITALIA



Iturria: Europar Batzordea.



ELGE-REN AURREIKUSPENAK

Ukraniako gerraren eragina ekonomian


BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

MUNDUKO BPGAREN GAIKEKO

ERAGINA

-1,1 PUNTU




Ukrainan gerra piztu baino lehen, adierazle makroekonomiko gehienak COVID-19 pandemia hasi aurreko normaltasuneko bideetara itzultzen ari ziren, eta aurreikuspenek 2023. urtean kokatzen zuten erabateko susperraldi ekonomikoa lortzeko unea. Gerrak, ordea, dena aldatu du eta ekarriko dituen ondorio ekonomiko garrantzitsuak gehitu behar zaizkio tragedia humanitarioari.

Errusia eta Ukraina BPGari dagokionez nahiko txikiak diren arren, funtsezko gaiak ekoizten eta esportatzen dituzten ekonomiak dira, batez ere nekazaritza eta energia produktuak. Bi herrialde horiekiko transakzio ekonomikoak gelditzeak munduko eskaria uzkuertzea eta eskaintzaren aldetiko shock bat eragiten du, prezioen igoera handia eraginez eta hornidura kateari tentsioak sortuz.


BPGAREN GAIKEKO ERAGINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INFLAZIOAREN GAIKEKO ERAGINA

Urte arteko aldakuntza tasa



ERRUSIAKO ENERGIA ESKAINTZAREN MENDEKOTASUNA

Errusiako energia inportazioen ehunekoa guztizkoarekiko



Gatazkaren eragin ekonomikoaren tamaina zailantazkoa da, eta gerraren iraupenaren eta gobernuak aplikatuko dituzten politiken arabera izango da.


ELGEk egindako simulazioen arabera, munduko BPGak ehuneko puntu bat inguruko eragina pairatuko du gerra hasi eta urtebetera. Inflazioari dagokionez, eragina 2,5 puntuko igoera izango da. Eragina ezberdina izango da herrialdeen artean, eta Europako ekonomiak izango dira Errusiaren inbasioak gehien kaltetuko dituenak, hur-

biltasun geografikoagatik eta Errusiatik datorren energiarekiko mendekotasun handiagatik. Euroguneko BPGari ekarriko dion eragin negatiboa 1,4 puntukoa da.

Gerrak agerian utzi du mendekotasun energetiko hori minimizatzearen garrantzia, eta gobernuak presionatzen ditu eskaintza ziurtatuko duten merkatu berriak berriaz aztertzea eta XXI. mendeko erronka nagusitzat trantsizio energetikoa sustatzera.

ENERGIA INPORTAZIOAK MURRIZTEAREN INPAKTUA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE



Inflazio gehiago eta BPG gutxiago

Ukrainako gerrak lehen hilabetea bete du eta ekonomian uzten ari diren ondorioak oso nabarmenak dira, bai prezioei dagokienez, bai ekoizpenari dagokionez. Ondorio horiei lotuta, **ELGEk gatazka armatuak izango duen eraginaren estimazioa egin du, eta urtebetean munduko ekonomiarik 1,1 puntu ken diezazkiokeela ondorioztatu du.** Halaber, European eragin handiagoa izango duela azaldu du, gerran dauden herrialdeekiko hurbiltasun geografikoagatik eta, bereziki, Errusiatik inportatzen duen energiarekiko Europak duen mendekotasunagatik. Horregatik guztiagatik, Europako BPGaren hazkunde txikiagoa aurreikusten du, 1,4 puntukoa. Inflazioari dagokionez, 2,5 puntuko eragina izango du munduko ekonomian, eta hamarrenen batzuk txikiagoa Europako ekonomian.

Gerrak ekarri duen suntsipenari buruzko informazioa komunikabide guztietan oso presente dagoen arren, igurikimenean adierazle batzuek oraindik ez dute aurreikus zitekeen bezala erantzun. Hori da, hain zuzen ere, euroguneko PMIren kasua, martxoan apur bat bakarrik moteldu baitzuen bere dinamismoa. Are gehiago, Frantziaren kasua igoera jaso zen. **Europako enpleguari buruzko igurikimenean ere ez dute nabarmen okerrera egin.** Ezkortasun handiena Europako sentimendu ekonomikoaren indizean ikusten da, familien konfiantzak nabarmen okerrera egin duelako.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2022rako aurreikuspenak eguneratu ditu, eta lehen aldiz kalkulatu ditu 2023rako aurreikuspenak. Taula makroekonomiko berri horretan, **aurtengo BPGaren igoera %4,5era murriztu da.** Beheranzko zuzenketan, bereizi egin behar dira gatazka armatuaren aurreko une ekonomikoari dagokion zatia eta gerraren beraren ondoriozkoa. Izan ere, liskarrak hasi baino lehen, otsailaren 24an, beheranzko berrikuspenak eginak ziren EAEko ekonomiarekin harremana duten herrialde nagusietan, eta inflazioaren gorakada jadanik handia zen. Bi arrazoi horiek (kanpo eskari txikiagoa eta inflazio handiagoa) berez justifikatzen zuten, gerra aurretik ere, beheranzko berrikuspen garrantzitsua egitea, baina gatazkak areagotu egin ditu aipatutako arrazoiak, eta ziurgabetasuna ekarri du, datozen aldietan eragile ekonomikoen erabakietan eragina izango duena.

Prezioak etengabe ari dira igotzen egun hauetan. **Nazioarteko merkatuetan lehengaien (industriakoak zein elikagaietakoak) eta produktu energetikoen garestitzeak ekonomiaren balio kate osoari eragiten dio,** eta hori prezioen adierazle nagusietan islatzen da. Horrela, eraikuntzaren sektoreko kostuek urte arteko %7,7ko igoera izan zuten otsailean, Ukrainaren inbasioaren aurretik, eta hil horretako KPIa %7,4ra iritsi zen. Zalantzarik gabe, martxoari buruz ezagutuko diren inflazioaren datuak altuagoak izango dira, estatuko martxoko KPIaren aurrerapenaren gorakadak iradokitzen duen bezala, % 9,8raino igo baita.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2020		2021		
			IV	I	II	III	IV
BPG	-9,9	5,6	-8,1	-2,9	18,6	3,9	4,7
Barneko azken kontsumoa	-8,9	4,8	-7,0	-2,5	18,1	2,4	2,7
Familien kontsumoa	-12,4	5,3	-10,6	-3,7	22,6	2,1	3,0
Administrazioaren kontsumoa	3,8	3,0	6,5	1,6	5,2	3,5	1,7
Kapital eraketa gordina	-11,7	6,3	-8,5	-1,3	21,4	3,7	4,3
Barne eskaria	-9,6	5,1	-7,4	-2,2	18,9	2,7	3,1
Esportazioak	-16,1	11,8	-13,8	-2,4	30,1	12,5	11,1
Inportazioak	-15,4	10,8	-12,5	-1,4	29,8	10,2	8,1
Lehen arloa	-15,0	1,8	-28,1	-7,1	7,8	4,6	2,6
Industria eta energia	-11,2	8,5	-6,8	-1,1	30,2	5,5	4,3
Eraikuntza	-8,2	2,4	-6,5	-2,4	11,5	1,3	0,5
Zerbitzuak	-9,0	5,0	-7,7	-3,5	15,5	4,0	5,4
Balio erantsi gordina	-9,5	5,6	-7,6	-2,9	18,4	4,2	4,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-13,6	5,3	-12,8	-3,0	20,4	1,9	3,7
Enplegua	-7,7	5,5	-5,9	-2,1	16,6	3,5	4,6

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2022				2022	2023
	I	II	III	IV		
BPG	5,6	4,0	4,1	4,1	4,5	4,1
Barneko azken kontsumoa	5,2	4,2	4,2	4,1	4,4	3,7
Familien kontsumoa	5,9	4,4	4,6	4,3	4,8	4,0
Administrazioaren kontsumoa	2,9	3,5	3,0	3,5	3,2	2,6
Kapital eraketa gordina	5,8	5,0	4,6	4,4	5,0	4,3
Barne eskariaren ekarpena	5,6	4,6	4,5	4,4	4,8	3,9
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	-0,6	-0,4	-0,3	-0,3	0,2
Lehen arloa	7,6	-7,5	-6,2	1,6	-1,4	-5,5
Industria	4,7	3,5	3,8	3,7	3,9	4,2
Eraikuntza	2,8	3,4	3,5	4,0	3,4	4,0
Zerbitzuak	6,1	4,3	4,4	4,4	4,8	4,2
Balio erantsi gordina	5,6	4,0	4,1	4,2	4,4	4,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	5,9	4,2	4,1	4,0	4,6	3,9
Lanaldi osoko lanpostuak	4,5	2,6	2,0	2,1	2,8	1,8
Landunak (BJA)	3,1	1,5	1,1	1,4	1,8	0,8

EAeko AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
Laboral kutxa	6,3	—	CEPREDE	5,0	3,7
Confebask	5,9	—	Hispalink (BEGren aldak.)	5,0	—
BBVA	5,3	4,5			

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2020		2021		
			IV	I	II	III	IV
BPG	-10,8	5,1	-8,8	-4,1	17,8	3,5	5,5
Kontsumo pribatua	-12,2	4,7	-10,1	-6,6	23,0	1,8	4,2
Kontsumo publikoa	3,3	3,1	4,7	4,4	4,1	3,5	0,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	-9,5	4,3	-5,7	-3,3	20,6	0,3	2,8
- Aktibo finko materialak	-10,5	4,1	-6,3	-3,6	23,4	-0,7	1,3
- Eraikuntzan	-9,6	-2,8	-8,8	-10,5	11,2	-5,5	-3,9
- Ekipamendu ondasunetan	-12,9	16,0	-2,6	8,1	49,5	7,0	9,5
- Jabetza intelektualaren produktuak	-4,3	5,5	-2,8	-1,4	8,5	5,4	9,9
Nazio eskaria (ekarpena)	-8,6	4,7	-6,5	-3,0	17,7	2,4	3,8
Esportazioak	-20,1	14,7	-15,3	-6,7	40,4	16,1	17,9
Inportazioak	-15,2	13,9	-9,5	-3,9	40,6	13,2	13,1

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
AFI	5,0	6,0	Mapfre Economics	5,0	4,8
BBVA	5,0	5,5	Oxford Economics	5,0	4,8
CaixaBank	5,0	5,5	Repsol	5,0	3,8
Merkataritza ganbera	5,0	4,3	Santander	5,0	4,8
CEEM-URJC	5,0	4,6	Metyis	5,0	2,9
CEPREDE-UAM	5,0	5,7	Universidad Loyola Andalucía	5,0	4,8
CEOE	5,0	4,7	Batez bestekoa	5,0	4,8
Equipo Económico (Ee)	5,0	4,6	Gobernua (2021-07)	6,5	7,0
EthiFinance Ratings	5,0	5,3	Espainiako Bankua (2021-12)	4,5	5,4
FUNCAS	5,0	4,2	Europar Batzordea (2022-02)	5,0	5,6
ICAE-UCM	5,0	5,3	NDF (2022-01)	4,9	5,8
IEE	5,0	4,3	Consensus Forecast (2022-03)	—	5,1
Intermoney	5,0	5,5			

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Merkataritza ganbera, CEEM-URJC, Equipo Económico (Ee), EthiFinance Ratings, ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2020		2021		
			IV	I	II	III	IV
AEB	-3,4	5,7	-2,3	0,5	12,2	4,9	5,6
Txina	2,0	8,1	6,4	18,3	7,9	4,9	4,0
Japonia	-4,5	1,8	-0,8	-1,8	7,3	1,2	0,4
Kanada	-4,9	4,6	-3,1	0,2	11,7	3,8	3,3
Europar Batasuna	-5,9	5,3	-4,0	-0,9	14,0	4,2	4,8
Eurogunea	-6,4	5,3	-4,3	-0,9	14,6	4,0	4,6
Alemania	-4,6	2,9	-2,9	-2,8	10,4	2,9	1,8
Frantzia	-7,9	7,0	-4,3	1,7	19,0	3,5	5,4
Erresuma Batua	-9,4	7,5	-6,4	-5,0	24,6	7,0	6,5
Italia	-9,0	6,6	-6,1	0,1	17,6	3,9	6,2
Herbehereak	-3,8	4,8	-3,1	-2,0	11,0	5,3	6,4

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2022KO MARTXOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
AEB	3,3	2,4	6,6	3,0	3,7	3,6
Japonia	2,3	1,8	1,4	0,9	2,6	2,5
Kanada	3,8	2,9	5,1	2,6	5,7	5,5
Europar Batasuna	3,4	2,5	5,1	2,2	—	—
Eurogunea	3,2	2,3	5,7	2,1	7,1	6,9
Alemania	2,4	2,6	5,2	2,4	5,1	4,9
Frantzia	3,3	1,7	3,9	1,9	7,6	7,5
Erresuma Batua	3,9	1,6	6,7	3,6	4,2	4,2
Italia	3,4	2,0	5,8	1,9	9,1	8,8
Espainia	5,1	3,4	6,3	1,7	—	—
Herbehereak	3,3	1,9	6,1	2,0	—	—

Iturria: Consensus Forecast.